



ORIOK OUDALA

AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2013ko azaroaren 28a, osteguna

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 20:00 **BUKATZEKO ORDUA:** 20:30

BERTARATUAK:

Alkatea

Beñat Solaberrieta Albizu

Zinegotziak

Jon Redondo Lertxundi, Noemi Ostolaza Arkauz, Lourdes Salsamendi Goñi, Eugenio Cotado Iturain, Elena Etxeberria Sedano, Jon Agirresarobe Lopetegi, Bixente Lasa Karrikaburu, Amaia Dorronsoro Portularrume, Ekiñe Saizar Larrañaga, Miriam Uranga Egurza eta Jose Angel Iparragirre Alberdi.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Angel del Hoyo Bravo zinegotziak (EAJ) adierazi du ezin zuela etorri, kanpoan dagoelako, eta beraz, ez du bilkuran parte hartu.



Gai-zerrenda

1. Adjudikatzea, egoki bada, Hiri Antolamendurako Plan Nagusia eta Orioko ingurumen-eraginaren ebaluazio bateratua egiteko lanak idazteko eta Udalari aholku emateko zerbitzuaren kontratazioa adjudikatzeko lehiaketa.
2. Indarrik gabe uztea, egoki bada, Orioko Udalak 2013ko otsailaren 5ean egindako ezohiko bilkuran hartutako erabakia, kontratazio publikoetako espedienteetan aplikatu beharreko hizkuntz irizpideak onartzen dituen.
3. Onartzea, egoki bada, Orioko Udalaren euskararen erabilera-plana, 2013-2017 aldirako
4. Onartzea, egoki bada, UEMAk aurkeztutako mozioa, abenduaren 3an ospatuko den Euskararen Eguna dela-eta
5. Adierazpen instituzionala onartzea, egoki bada, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari, Eusko Legebiltzarrak aho batez 2013ko otsailaren 28an onartutako transakzio-zuzenketa betetzea eskatuz
6. Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

1.- ADJUDIKATZEA, EGOKI BADA, HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN NAGUSIA ETA ORIOKO INGURUMEN-ERAGINAREN EBALUAZIO BATERATUA EGITEKO LANAK IDAZTEKO ETA UDALARI AHOLKU EMATEKO ZERBITZUAREN KONTRATAZIOA ADJUDIKATZEKO LEHIAKETA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Lehiaketaren iragarkia 2013ko irailaren 4an argitaratu zen 168. zenbakidun Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Lehiaketara proposamenak aurkezteko irekitako epean, honako lehiatzaileak aurkeztu dira:

- 1.- Santiago Peñalba, Manu Arruabarrena eta Mikel Iriondo.
- 2.- SABAI ARKITEKTOAK, SLP eta EKAIN, SA.
- 3.- Iñaki Etxeberria eta Maria Etxeberria.
- 4.- Omar Benítez Rodríguez



Kontratazio Mahaiak proposatu du, gehiengoz, kontratua Santiago Peñalba eta Manu Arruabarrena arkitektoek eta Mikel Iriondo abokatuak osatzen duten taldeari adjudikatzea, beren proposamena izan delako puntuaziorik handiena lortu duena, baldintza ekonomiko-administratibo partikularren 14. artikuluan ezarritako adjudikazio-irizpideen arabera.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Kontratazio Mahaiak egindako proposamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Kontrako botoak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Salsamendi (EAJ) Cotado (EAJ) eta Etxeberria (EAJ), guztira **BOST KONTRAKO BOTO**]:

1.- BALIOZKOTZAT JOTZEA 2013ko urriaren 3an eta azaroaren 25ean egindako plikak irekitzeko ekitaldia.

2.- BEHIN BETIKOZ ADJUDIKATZEA Hiri Antolamendurako Plan Nagusia eta Orioko ingurumen-eraginaren ebaluazio bateratua egiteko lanak idazteko eta Udalari aholku emateko zerbitzua Santiago Peñalba eta Manu Arruabarrena arkitektoek eta Mikel Iriondo abokatuak osatzen duten taldeari; zerbitzu hori ematearen prezioa 205.095 eurokoa da, BEZa barne.

3.- JAKINARAZTEA erabaki hau prozedura administratibo honetan interesa duten guztiei, aurkez ditzaketen lege errekurtsioak adieraziz.

Adjudikaziodunak dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko du, zerga betebeharrak eta gizarte segurantzarekikoak egunean dituela justifikatzeko, eta behin betiko abala (8.475 eurokoa) eman beharko du hamabost laneguneko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta hurrengo lanegunetik kontaktzen hasita.

Jon Redondo zinegotziak hartzen du hitza, EAJren izenean, eta adierazten du bere talde politikoak kontrako botoa eman duela, ez dutelako ikusten, momentu honetan, zerbitzu-kontratu horren lizitazio publikoa egiteko premiarik (besteak beste, indarrean dagoen Hiri Antolamendurako Plan Nagusiak oraindik guztiz garatu gabeko sektoreak dituelako: Munto, Aizperro, Dike ingurua...); horren ordez, proposatzen dute partida horretako dirua udal kiroldegia hobetzeko eta haurreskola handitzeko lanak egiteko erabiltzea.

2.- INDARRIK GABE UZTEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDALAK 2013KO OTSAILAREN 5EAN EGINDAKO EZOHICO BILKURAN HARTUTAKO ERABAKIA, KONTRATAZIO PUBLIKOETAKO ESPEDIENTEETAN APLIKATU BEHARREKO HIZKUNTZ IRIZPIDEAK ONARTZEN DITUENA.



Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Gaia 2013ko azaroaren 25eko Kultura, Euskara, Hezkuntza eta Festetako batzorde informatzailean diktaminatu zen. Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskara Zuzendaritzak aholkatu dio Udalari erabaki hori hartzea, kontuan hartuta Estatuko abokatuak ezarritako administrazioarekiko auzi-errekurtoan arrazoitu duela Udalak ez daukala ahalmenik gai horri buruz erabakitzeko.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Kultura, Euskara, Hezkuntza eta Festetako batzorde informatzaileak 2013ko azaroaren 25ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

BALIOGABETZEA ETA INDARRIK GABE UZTEA Orioko Udalak 2013ko otsailaren 5ean egindako ezohiko bilkuran hartutako erabakia, kontratazio publikoetako espedienteetan aplikatu beharreko hizkuntz irizpideak onartzen dituena.

3.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDALAREN EUSKARAREN ERABILERA-PLANA, 2013-2017 ALDIRAKO

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Erabilera-planaren txostenak honako hau dio, besteak beste:

Euskara planaren helburu nagusia da Udalean euskararen erabilera indartzea eta areagotzea, bai zerbitzu hizkuntza bai lan hizkuntza modura, euskararen erabilera bermatu eta herritarren hizkuntza eskubideei erantzun ahal izateko.

Euskara plan honen helburu estrategikoek helburu nagusia lortzeko landu beharreko ildo nagusiak markatuko dituzte:

- *Herritarrekiko harremanetan euskara zerbitzu hizkuntza izan dadin bermatzea, beti ere herritarren hizkuntza eskubideak errespetatuz.*
- *Euskara beste administrazioekiko harremanetako hizkuntza izan dadin bermatzea.*
- *Euskara administrazio barneko lan hizkuntza izan dadin bermatzea.*

Orioko Udalak, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak III. plangintzaldirako proposatu zuen eskemari jarraituz, 2003ko abenduaren 29an Udalean Euskararen erabilera-plana gauzatzea onartu zen.

IV. plangintzaldiko planari dagokionez, 2008-2012 bitarteko plana zehaztu eta egokituta, Udalak plangintzaldi horretarako erabilera-plana 2010eko urtarrilaren 26an onartu zuen.



IV. plangintzaldia amaituta, Udalak euskararen erabilera-plana berritzeari ekin dio eta, beraz, esku arteko agiri hau V. plangintzaldirako erabilera-plana da. Bertan, gaur egun Orioko Udalak, UEMAK bere baitan dauden udaletarako onartuta dituen hizkuntza irizpideak kontuan hartuta, euskararen erabileraren egoera aztertzen da eta, horren ondoren, plangintzaldi honen amaierarako lortu beharreko helburu orokorrak zehazten dira.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Kultura, Euskara, Hezkuntza eta Festetako batzorde informatzaileak 2013ko azaroaren 25ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA Orioko Udalaren euskararen erabilera-plana, 2013-2017 aldirako.

4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UEMAK AURKEZTUTAKO MOZIOA, ABENDUAREN 3AN OSPATUKO DEN EUSKARAREN EGUNA DELA-ETA

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Mozioak, hitzez hitz, honela dio:

ARNASGUNEAK HEDATUZ ETORKIZUNA LANDU

Abenduaren 3a, euskararen eguna. Aurtengoan ere, ospakizunetarako, hausnarketarako edota aldarrikapenerako tarterik izango da euskararen egunean. Eta horretarako, ekitaldi ugari eta askotarikoak antolatuko dira Euskal Herriko luze zabalean.

Lehenik eta behin, euskararen egunak ospatzeko egun bat izan behar duelakoan gaude. Izan ere, euskara maite dugunok badugu zer ospatu 2013ko abenduaren 3an. Euskara bizirik da, baditu hiztunak, eta etorkizuneko ateak zabalik ditu oraindik ere. Baldintzarik gogorrenetan ere aurrera egin du euskarak, eta horrek etorkizunarekin baikor izateko arrazoiak eskaintzen dizkigu.

Geroa euskaraz eraikitzeke ordea, garrantzitsua da zertan ginen jabetu eta zein egoera daukagun ikustea. Eta gaur egun daukagun egoerari erreparatzen badiogu, zonaldearen arabera, oso egoera soziolinguistiko ezberdin eta kontrajarriak dauzkagula ohartuko gara. Oraindik ere, arrotz dabil euskara bere herriko hainbat eremutan, aitortza ofizialik gabe eta lege babesik gabe. Aldiz, nagusi da gure herriko beste hainbat eremutan.

Horregatik, tokiko errealitatetik abiatutako aurrerapausoak bultzatu behar ditugu. Herriz herri euskararen arnasguneak hedatuz landu behar dugu etorkizuna. Gure udalerrria euskararen arnasgunea da, zorionez; beraz, lehenik eta behin ezinbestekoa zaigu dagokigun aitortza ofiziala aldarrikatzea. Horrekin batera,



gune hauen erabateko normalizaziorako beharrezko ditugun hizkuntza politika ausartak garatzeko baliabideak exijitzea dagokigu, legea bera ere beharren neurrira egokituz.

Udalerri euskaldunetan biztanleen %70ak baino gehiagok daki euskaraz, eta oro har, euskaraz bizi gara bertako herritarrok. Udalerri euskaldunek euskararen arnagunerik zabalena osatzen dute. Eta hizkuntza batek, biziko bada, nagusi izango den eremuak behar dituen ezinbestean, udalerrion funtzio garrantzitsua dute euskararen geroan.

Horregatik, garrantzitsua da udalerri euskaldunetako administrazioak batetik, gaiari beharrezkoa zaion garrantzia ematea, eta herritarrok bestetik, euskararen geroan jada jokatzeko dugun paperaz jabetu eta euskararen inguruan sentsibilizatzea. Gure herriak erreferentziazkoak dira euskarari dagokionean, eta ondorioz baita bertako herritarrek ere. Gune hauetan egiten diren hizkuntza politikak, eta norbanakook egunerokoan ditugun hizkuntz ohiturak, jarrera eta joerek eragin zuzena dute euskararengan.

Gure herritik abiatuta, herritar soilen inplikazioaz, elkarte eta eragileekin bat eginez eta instituzio publikoen laguntzaz pauso sendoak eman ditzakegu euskararen arnaguneak zabaltzeko. Oriotik inguruko herrietara, Oriotik Euskal Herrira.

Adierazpen instituzionala (puntuak):

Orioko udalak, 2013ko abenduaren 3an, euskararen egunean, ondoko adierazpena plazaratu nahi du:

- Orion euskara nagusi denez, hizkuntza politika ausart eta aurrerakoiak garatzeko baldintzak daude. Udalerri euskaldunok, lege babesa eta baliabideak behar ditugu aurrerapauso sendoak eman ahal izateko.

- Udalerri euskaldunok euskararen arnagunerik zabalena osatzen dute. Eta beraz, Orio bezalako udalerriek euskararen geroan jokatzeko duten paper garrantzitsua aitortzea ezinbestekoa da.

- Gure herria euskarari dagokionean erreferentziazko udalerria dela jakinda, Orion garapen sozioekonomiko eta soziokulturalak zein bestelako proiektuek sor dezaketen eragin soziolinguistikoa kontutan hartzeko konpromisoa hartzen dugu.

- Euskararen aurkako erasoekin amaitu behar da. Hainbat udalek onartutako hizkuntz irizpideen aurka jarritako helegiteak esaterako, kalte nabarmena egiten diete euskararen normalizazioari.



- Orioko Udalak, herriko eragile eta norbanakoekin elkarlanean euskararen aldeko lanean jarraitzeko konpromisoa hartzen du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Kultura, Euskara, Hezkuntza eta Festetako batzorde informatzaileak 2013ko azaroaren 25ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA, UEMAk, Euskararen eguna dela-eta, aurkeztutako mozioa, goian jasota dagoen bezalaxe, eta mozioari Adierazpen Instituzional maila ematea.

5.- ADIERAZPEN INSTITUZIONALA ONARTZEA, EGOKI BADA, EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILARI, EUSKO LEGEBILTZARRAK AHO BATEZ 2013KO OTSAILAREN 28AN ONARTUTAKO TRANSAKZIO-ZUZENKETA BETETZEA ESKATUZ.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Adierazpen instituzionala EUSKAL HERRIKO MUSIKA ESKOLEN ELKARTEAK aurkeztu du eta honela dio, hitzez hitz:

ERAKUNDE ADIERAZPENA, EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILARI, EUSKO LEGEBILTZARRAK AHO BATEZ 2013KO OTSAILAREN 28AN ONARTUTAKO TRANSAKZIO-ZUZENKETA BETETZEA ESKATUZ.

Musika eskolak, heziketa sistematiko eta egonkor baten bidez, bai ume, gazte zein nagusien heziketarako, funtsezko osagarria edo hobekuntza eskaintzen dituzten hezkuntza-zentroak dira. Hauen helbururik nagusiena zaleen heziketa eta instrumentu eta ahots-taldean sustapena da, nahi duten pertsona guztiak musika-praktikan has daitezen eta, sentikortasun eta adiera estetikoaren garapena arte-hezkuntzaren atala bezala.

Guztion hezkuntzan ezinbesteko lana betetzen dute, haien plan pedagogikoaren barruan adin, gaitasun eta musika-estilo guztietara egokitutako heziketa-eskaintzak egiten dituzte, eta, gure herriaren historia eta musika-ondarearen ezagutza eta zabalkuntzarako gune ere bihurtu dira. Eskolek gizartearekin duten konpromisoa aitortu behar dugu, baita gure udalerriek, horiek mantentzeko egiten duten lana ere, Musika Eskolen garapenean laguntzen baitute, etorkizunari begira hezkuntza eta kultura arloko proposamen bezala balioa emanez.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak jasotzen zuen bezala, Musika Eskolak Euskadiko arte hezkuntzaren erreferentziarik garrantzitsuena izan dira eta dira, beren ohiko ezarpenagatik, ekintza honek gizartean sortarazi duen erakargarritasunagatik eta, bereziki, toki administrazioek (udalek) izan duten



parte-hartzeagatik. Daukaten garrantzi sozialarekin (35.000 ikasle baino gehiago) eta udalen ahaleginekin bat etortzeko, Hezkuntza Sailak bere plangintza eta finantzaketan arreta eta baliabide bereziak eskaini dizkie.

Ildo honetan, 2006ko urriaren 11n, Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza eta Kultura-batzordeak, aho batez legezkoa ez den proposamen bat onartu zuen. Bertan hurrengo proposatzen zen:

Bat. Eusko Legebiltzarrak Hezkuntza Unibertsitate eta Ikerketa Sailan Euskal Autonomia Erkidegoan musika eskolei buruzko ikerketa orokorra martxan jartzeko, koordinatzeko eta, kasua bada, idazteko eskatzen dio.

Bi. Eusko Legebiltzarrak Hezkuntza Unibertsitate eta Ikerketa Sailari, European eredu egokia bezala ezarrita dagoen %33ko finantzaketa bost urteko epean lortzeko asmotan, musika eskolen diru-laguntzetarako (hauen finantzaketan toki-administrazioak parte hartzen dute) aurrekontu-zuzkidura, mailaz maila, urte anitzeko plan batean handiagotzea eskatzen dio.

Hiru. Nolanahi ere, Sail honek oraingo aurrekontuetan onartuta eta ekitaldiaren amaieran burutu barik egon litekeen gastuaren atala musika eskolei zuzentzen den kontu-saila handiagotzeko beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu.

Halaber, 2013ko otsailaren 28an, Legebiltzarrak aho batez hurrengo legezkoa ez den proposamena onartu zuen:

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari eskatzen dio musika eskolentzat zehaztu gabeko epean %33ko finantzaketa egonkorra lortzeko ekintza-plana ezartzea, mailaz maila erabilgarri diren baliabideen esparruan aurreratzeko, eta, Euskal Herriko Musika Eskolen Elkartearekin, bere jardueraren hobekuntza eta eguneratzean lan egitea, musika-hezkuntzako arloaren sendotzea lortzeko asmotan.

Azken urte hauetan, Sailaren aldetik musika eskolen finantzaketak la 2.500.000 €-ko jaitsiera garrantzitsua jasan du. Kasu gehienetan, toki-administrazioek bereganatu dute jaitsiera hau. Gaur egun, Eusko Jaurlaritzak emandako finantzaketa %14koa da soilik, hasieratik guztiok defendatutako europar eredutik oso urrun.

Horregatik guztiagatik, alkatetzak udalbatzarrari hurrengo erakunde-adierazpena aurkezten dio:

ERAKUNDE-ADIERAZPENA



Orioko Udalak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sallan, musika eskolentzat %33ko finantzaketa egonkorra lortzeko asmotan, Eusko Legebiltzarrak aho batez 2013ko otsailaren 28an onartutako transakzio-zuzenketa betetzea eta ekintza-plana ezartzea eskatzen dio.

Jon Redondo zinegotziak hartzen du hitza, EA]ren izenean, eta bertaratuei adierazten die Legebiltzarrak transakzio-zuzenketa onartu zuela musika eskolen finantzazioaren gaiari buruz eta transakzio-zuzenketa horrek honela dioela, hitzez hitz:

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari eskatzen dio musika eskolentzat zehaztu gabeko epean %33ko finantzaketa egonkorra lortzeko ekintza-plana ezartzea, mailaz maila erabilgarri diren baliabideen esparruan aurreratzeko, eta, Euskal Herriko Musika Eskolen Elkartearekin, bere jardueraren hobekuntza eta eguneratzean lan egitea, musika-hezkuntzako arloaren sendotzea lortzeko asmotan.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Kultura, Euskara, Hezkuntza eta Festetako batzorde informatzaileak 2013ko azaroaren 25ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA EUSKAL HERRIKO MUSIKA ESKOLEN ELKARTEAK aurkeztutako Adierazpen Instituzionala, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari Eusko Legebiltzarrak aho batez 2013ko otsailaren 28an onartutako transakzio-zuzenketa betetzea eskatuz, goian jasota dagoen bezalaxe.

6.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Jon Agirresarobe zinegotziak (Bildu) hartzen du hitza eta adierazten die bertaratuei Euskararen Egunean, abenduak 3, urteroko 'Euskaraz Gazte' literatur lehiaketaren sari banaketa egingo dela udalbatzarraren aretoan eta, horrez gain, 'Euskaraz bizi-bizi' kanpainarako prestatutako bideoa aurkeztuko dela.

Horrenbestez, udalbatzarrera bertaratutako pertsonetako inork hitza hartu ez duenez, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,